



LESAKAKO ALKATETZAREN EBAZPENA

2016ko ekainaren 3an Lesakako alkate jaunak, honako hau ebatzi du, bertzeak bertze:

**“(217/2016) TOBERA MUSIKA IHarduerak S.L.L. – LESAKAKO MUSIKA
ESKOLAN KLASEAK EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA (2016-2017 IKASTURTEA)**

2015eko martxoaren 30ean egindako bileran, Lesakako Udaleko Osoko Bilkurak, agiri hau onartu zuen: Baldintza Administratiboen Plegua, Musika Eskolako klaseak emateko kontratua adjudikatzeko, prozedura irekiaren bitartez (2015-2016 ikasturtea).

Apirilaren 14an Nafarroako Kontratazio Atarian iragarki bat argitaratu zen. Maiatzaren 18raino epea ematen zen eskaerak aurkezteko. Aipatutako egunetan eskaera bakarra jaso zen: Tobera Musika Iharduerak S.L.L.ek aurkeztutakoa.

Horren ondoren, 2016ko ekainaren 8ko 228/2015. Alkatezaren Ebazpenak, kontratua Tobera Musika Iharduerak S.L.L. enpresari esleitu zion, 2015-2016 ikasturterako, 120.000 €ren truke. Irakaskuntza jarduera bat delako, Balore Erantsiari buruzko Zerga ez da ordaindu behar.

Kontratua ekainaren 23an sinatu zen,

Hori guztia dela eta, Baldintza Pleguaren 10. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, zera erabaki dut:

1.) Tobera Musika Iharduerak S.L.L.ri, baldintza ekonomiko berarekin, 2016-2017. urterako kontratua luzatzea.

2.) Enpresari, Ebazpen honen jakinerazpena bidaltzea eta, baita ere, Nafarroako Kontratazio Atarian eta Lesakako Udaleko web orrian argitaratzea.”

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetarik edozein:

- A. Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatu zuena).
- B. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa:
 - Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.
 - Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).
- C. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa).

Lesakan, 2016ko ekainaren 10(e)an.

Alkatea,
José Luis Echegaray Andueza



Ziurtatzen dut,
Idazkaria,

TOBERA MUSIKA IHarduerak S.L.L.
Plaza berria 4
31770 LESAKA